

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduera Aniztasun Funtzionala duten pertsonentzat antzerki eta dantza tailerra eskaintzea izango da, helburua kurtso amaieran emanaldia eskaintzea delarik. Horrez gain, ekintza desberdinak burutuko ditugu; hala nola, motrizitate fina lantzeko ariketak, eskulanak, sormenea lantzeko ekintzak...

Egingo dugun antolaketa pertsona taldearen arabera izango da. Proiektu honetan, aurreko kurtsoan eduki genuen taldea hartuko dugu adibide gisa, baina esan dugun moduan, sortzen den taldearen beharren eta gaitasunen arabera egokituko ditugu ekintzak. Bertan jorratuko ditugun jarduerak, talde guztiak batera egiteko modukoak izango dira, talde kohesioa uztartzeko. Horretarako, bakoitzaren gaitasun ezberdinak ezaguturik, gaitasun bakoitzera pertsonalizatuta edo egokituta egongo dira egingo ditugun ekintza guztiak. “Adibide bezala, urte honetako taldea: Dawn sindromea, gorpildun aulkian eta mugikortasun eza dutenak”.

Gure enpresa ezagutaraztera eramateko, publizitateaz baliatzea ezinbestekoa da. Horretarako, baliabide ezberdinak erabiliko ditugu; esate baterako, EITBn iragarki bat jarriko dugu, goierrialdeko hainbat herritan kartelak ipiniko ditugu, sare sozialetan gure zerbitzuari buruzko informazioa zabalduko dugu eta guk sortu eta saldutako arropetan gure enpresaren izena agertuko da.

Gure proiektuan interesa adierazten duten erabiltzaileek, ekaineko lehen astean, gure zerbitzua ezagutzeko egingo diren ate irekietan parte hartzeko aukera izango dute. Bertan, gure espazioa eta ditugun baliabideak ezagutuko dituzte, baita kurtsoan zehar egingo ditugun jarduera nagusienak ere. Honakoa amaitu ostean, ikusitakoa gustokoa izan badute, telefonoz edo korreo elektrikoaren bitartez izena emateko hitzordua hartu dezakete. Izena ematea fisikoki egingo da udaletxean dugun bulegoan.

Erabiltzaileek izena eman ondoren eta taldea ateratzen bada, ekaineko lehenengo astean bi egunetan elkartuko gara elkar ezagutzeko. Horretarako, lehenengo egunean elkar ezagutza dinamika egin eta elkarrekin espazioaren

antolamendua prestatuko da, talde kohesioa eta harremana sustatzeko. Bigarren egunean aldiz, talde kohesiorako beste dinamika bat proposatuko dugu eta bi egun hauetan behaketa erabiliz, bakoitzaren beharrak identifikatuko ditugu ondoren irailean hasiko dugun tailerra prestatu ahal izateko.

Izena eman ostean eta bi egunetako tailerra burutu ondoren, familiengandik jasotako informazioa kontuan hartuta eta bakoitzaren beharrak ezagututa, abuztuan 4 profesionalak elkartuko gara irailean ekingo diogun urteko planifikazioa egiteko.

Kurtsoarekin hasi aurretik, familiekin batera bilera orokor bat egingo dugu asteko bi egunak eta ordutegia zehazteko. Behin guztia adostuta dugularik, tailerra hasi baino lehenago, aditu guztiok elkartuko gara egun horretan egin behar dugunari buruz hitz egiteko, baita espazioa eta materiala antolatzeko ere. Bitartean profesionaletako bat, erabiltzaileen bila joango da minibusarekin.

Esan bezala, irailetik maiatzera iraungo du guk eskainiko dugun zerbitzuak eta tartean bi emanaldi edo ikuskizun eskainiko ditugu. Lehenengoa, aberduaren 23an izango da gabonak ospatzeko, bigarrena aldiz, ekaineko lehen ostiralean egingo da, udako oporraldiari hasiera emateko.

Planifikazio aldetik, orokorrean, bi astez behin, lehen aipatutako garapenarekin lotutako ekintzak burutuko ditugu, bertan ondo pasatuz pixkanaka azken helburua edo azken emaitza lortu ahal izango da. Aurretik aipatu dugun moduan, familiekin ere, nahi dutenean parte hartzeko aukera izango dute, bai ikusle moduan edo tailerrean ekintzak eginez, elkarlana baita gure zerbitzuaren helburuetako bat.

Amaitzeko, bazkide bakoitzak 2-4 erabiltzaile izango ditu (kopuruaren arabera adostuko da honakoa) erabiltzaile bakoitza bere osotasunean behatzeko. Honetarako erregistro orri bat sortu eta erabiliko dugu. Datu hauek Excel plataformara igoko dira. Informazioa uneoro familikoei eta parte hartzen duten elkarteekin (Gureak eta Aspace) elkartrukatuko dugu, honela lortuko dugu eta erabiltzaile bakoitzaren garapen prozesua kontuan hartzea eta hobekuntzak egitea.